

OLAZTI**2019rako zerga-tasak**

Olaztiko Udalak, 2018ko urriaren 25eko osoko bilkura arruntean, jarraian ematen den erabakia hartu zuen 2019ko ekitaldian aplikatzeko zerga-tasen harira. Argitaratzen da, orok jakin dezan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritakoa betetzeko.

2019ko ekitaldian aplikatzeko zerga-tasak.

a) Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga:

1.–125.000,00 eurora bitarteko kostu erreal eta benetakoa: %2,5.

2.–125.000,01 eurotik 187.500,00 eurora bitarteko kostu erreal eta benetakoa: %3.

3.–187.500,01 eurotik 250.000,00 eurora bitarteko kostu erreal eta benetakoa: %4,5.

4.–250.000,00 eurotik gorako kostu erreal eta benetakoa: %5.

b) Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga:

Zerga-tasa: %13,12.

Koefizienteak: 2/1995 Foru Legearen 175.2 artikuluan (19/2017 Foru Legeak emandako testuarekin) ezartzen diren gehienekoak, sortzealdiaren arabera.

c) Lurraren gaineko kontribuzioa:

Tasa bakarra (0,24) landa-lurreko eta hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuziorako.

d) Ekonomia-jardueren gaineko zerga:

Indizea: 1,40.

–Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren eta lur-ondasunen gaineko kontribuzioaren zerga-tasak aplikatzeko, erabaki hau balorazio txostenaren menpe geratzen da, hori behin betiko onetsi eta indarrean jartzen den arte, 2019ko ekitaldia baino lehen.

Erabaki honen aurka, errekurtsio hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:

a) Berraztertze errekurtsioa, egintza burutu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Olaztin, 2018ko urriaren 29an.–Alkatea, Mikel Azkargorta Boal.

Iragarkiaren kodea: L1813193